

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Basilio Agirretxe Lasa

*Errezil,
Gipuzkoa
(1924)*

Aurkibidea



Biografia



Errezilgo Bitartea baserrian jaioa, "Galarraga" bezala ezagunagoa. Gurasoak bertakoak zituen. 11 senide ziren, horietako bederatzia mutilak. Azpeitiko Elosiaga auzoko eskolan ibili zen Basilio. 11 urterekin, Gabiriko seminaria eraman zuten, baina etxera joan zen ihesi; ondoren, anaia eta biak Hernaniko Jauregi baserrian egon ziren morroi osabarekin, lau urtean. Beizamara joan zen gero, arreba hara ezkondu baitzen. Afrikan egin zuen soldadutza, eta pertika jaurtitzen gailendu zen han. Gero Igeldoko ganadutegi batean, Asteasuko harrobian eta Eibarko 'Aurrera' fundizioan egin zuen lan. Okin lanbidea ikasi, eta Eibarren, Arrasaten eta Zarautzen jardun zuen ogia egiten. Orioko emakume batekin ezkondu zen; Irunen ile-apaindegia zuen hark, eta Irunera joan ziren bizitzera. Hiru alaba izan zituzten. Hendaia bi okindegitan egin zuen lana, eta, gero, denda jarri zuen San Martzial kalean: 'Comestibles BG'. Iruñea inguruan ere bizi izan da; alargundu ondoren, bigarren aldiz ezkondu zen.

Zintak

ERZ-016

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-03-30
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ERZ-017

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-03-30

- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Agirretxe Lasa, Basilio | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com